Eragin soziala sortu zure ekitaldiaren bitartez

Fair Saturday 2021an parte hartzeko gida

Fair Saturday Foundation



Ekitaldiak proiektu sozialekin konektatzea...

...Fair Saturday jaialdia hain berezia egiten duen gauzetako bat da.

Kulturak gizartean egiten dituen hainbat gauza erakusteko gure modua da...

... mundu justuagoa eta enpatikoagoa sortzen saiatzen, eta etorkizun hobeagoa lortzeko lan egiten duten pertsona eta erakunde guztiei eskerrak ematen.

Artisten, proiektu sozialen eta publikoaren arteko loturak zerbait berezia gehitzen dio ekitaldi bakoitzari...

... horregatik zure ekitaldiaren bidez proiektu sozial bati laguntzea eskatzen dizugu; proiektu horretako norbait gonbidatzea jendeari bere lanaz hitz egiteko eta ekitaldiaren hasieran Fair *Saturday-ren sarrera testua* irakurtzea.

Fair Saturday, batez ere, gertaera kultural bat da: mota guztietako diziplinen ospakizuna...

Genero eta diziplina guztiak; artista amaterrak zein profesionalak; komunitateak edo/eta kolektiboak... gonbidatuta daude parte hartzera eta egiten dutena erakustera.

Jaialdiaren bitartez, kulturaren balioa erakusten dugu, eta bere indarra aldaketa positiboa lortzeko.
Gure misioa proiektu sozialak laguntzea, enpatia sustatzea eta gizartean inpaktu soziala sortzea da. Fair Saturday ez da, eta ez da inoiz izan, dirua biltzeko ekitaldi bat.

Proiektu sozial bati laguntzea ez du zertan oztopo bat izan behar. Beraz, zalantzak izatekotan, jarri gurekin harremanetan.

Proiektu sozialen lana bermatzea...

Hiru modu nagusi daude zure ekitaldiaren bidez proiektu sozial bati laguntzeko.

Harrotasuna

Haiek egiten duten lanaz harro gaudela erakutsiz.

Difusioa

Haien mezua zabaltzen eta ekitaldiaren hasieran tarte bat ematen.

Diru bilketa

Proiektuarentzako diru-sarrerak lortuz ekitaldian lortutako dohaintzen bidez (% sarrerak, dohaintzak...).

Zure esku dago proiektu sozialei zelan laguntzea

Ekitaldi bakoitzeko antolatzaileen esku dago erabakitzea nori eta nola lagundu. Dokumentu honetan gomendio batzuk emango dizkizugu, baina **3 gauza nagusi** gogoratu behar dituzu...

Kultura ezinbestekoa da

Kultura Fair Saturday-ren oinarria da, eta ikusleek, artisten lana behar bezala baloratu behar dute. Artistek ez dute zertan doan jardun behar edo beren katxeen ehuneko bat proiektu sozialari eman behar. Artista batek ehuneko bat ematea erabakitzen badu, baimenduta dago, noski, baina ez da beharrezkoa. Ekitaldiaren gastuan behin ordainduta, dohaintzak egin daitezke.

Proiektu soziala bazara, zeure buruari laguntzea erabaki dezakezu

Fair Saturday jaialdian parte hartzen duten erakunde asko proiektu sozialak dira, eta ezin hobea da aukera hori hautatzea dirua biltzeko. Are hobeago proiektu zehatz baterako bada. Adibidez, onuradunak gonbida ditzakezu beren esperientzia publikoarekin partekatzeko.

Dena ez da dirua

Zure ekitaldien bidez proiektu sozialak laguntzeko modu asko daude. Pentsa ezazu aukera desberdinetan.

Proiektu sozialak laguntzeko ideiak

Beste modu asko daude, proiektu sozialak laguntzeko. Jarraian horietako batzuk dituzu, baina pentsa ezazu ere zure ideietan!

Sustatu aukeratutako proiektu soziala zure ekitaldiarekin batera

Eman ahotsa zure sare sozialen bidez; gehitu bere izena eta logotipoa ekitaldiaren kartelean eta beste komunikabide batzuetan; Gonbidatu proiektu sozialeko norbait bere lanari buruz hitz egiteko.

Elkartu zaitez proiektu sozial batekin ekitaldia antolatzeko

Taldean lan egitea aberasgarriagoa izaten da, izan ere, bikaina da baliabideak eta ezagutzak partekatzea. Proiektuek jarraipen handia lor dezakete eta ikusle berriei heldu.

Sarreren salmentaren ehuneko bat ematea

Dohaintzan emandako kopurua zure esku dago, baina ziurtatu zure gastuak ordainduta daudela. Esaiguzu zer daukazun buruan.

Gonbidatu proiektu sozialeko pertsonei zure ekitaldira

Dirua eman beharrean, zuk nahi duzun proiektu sozialeko pertsonei gonbidatu zure ekitaldira sarrera batzuen bitartez. Zure ekitaldia goza dezaten.

Ekitaldian proiektu sozialerako dirua biltzeko produktuak saldu

Produktuak saldu ditzakezu zure proiektu soziala laguntzeko. Artikulu hauek merchandising-a izan daiteke edo ekitaldirako sortutako zerbait.

Ikusleei zuk aukeratutako proiektu soziala laguntzera gonbidatu

Zuzeneko dohaintza izan daiteke. Ez du zertan dirua izan behar. Adibidez, ekitaldi askotan dohaintza egiten da elikagai-bankuentzako.

Proiektu soziala bazara, aprobetxatu aukera hau zure lana partekatzeko eta zabaltzeko...

Aprobetxatu aukera hau zure erakundearen helburua zein proiektu zehatz bat ezagutzera emateko.

Proiektuan parte hartzen duen pertsona gonbidatu bere esperientzia azaltzeko - istorio pertsonalak inspiratzaileak izan daitezke eta kolaboratzaileak lortzen lagundu dezakete.

Eta amaitzeko... Gogoratu...

Proiektu sozial bat babestea, Fair Saturday-ren atal berezi bat da, baina ez dugu inoiz parte hartzeko oztopo izatea nahi; beraz, gurekin zure ideiez hitz egin nahi baduzu, gustora entzungo dizugu. Kulturaren sektorea oso garai gogorra bizitzen ari da, eta ahal dugun guztia egin nahi dugu zuei laguntzeko.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan helbide elektroniko honen bidez: fsfestival@fairsaturday.org edo telf. zenbaki hauen bitartez (+34) 676 77 75 91 edo 686 82 92 05